

**KRISTAUTASUNAREN SARRERA
EUSKAL HERRIAN
(A. Azkarate-ren liburua dela-eta)**

Sarrera

Aurten liburu interesgarri eta onuragarri bat argitaratu da: AGUSTIN AZKARATE GARAI-OLAUN, *Arqueología cristiana de la Antigüedad Tardía en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Vitoria-Gasteiz 1988.XXI - 554 orr.

Poztasun handia sortu dit liburu hain baliagarri eta berrie-maila esku artean aurkitzeak. Berandu heldu zait bukatu berri dudan nire «Ikertlan-materialak» libururako. Baina hurrengo urteetan dauzkan aberaztasunez baliatuko naiz.

Liburu handi honek Euskal Herria kristautzeari buruzko erizpideen informazio ugari eskaintzen digu. Baina askozaz ere informazio ugariago eskaintzen digu arkeologiaren egoeraz. Zer esanik ez, gure historiaren ezagueran, arkeologia bezalako iturri garrantzitsuak erabiliz aurrerantz egiten laguntzen gaituen liburu on bat dugu.

Egia esan, ez nator guztiz bat dituen ikuspuntu batzurekin ez eta estilistika eta metodologia alorrean ematen diren tratamendu batzurekin, bereziki «La cristianización del País Vasco...» izenpurua duela dakarren kapituluarekin. Hala eta guztiz

ere bihotzez eskertu dezakegu A. Azkarate liburu serio eta ikuspuntu batzurretan erabatekoa aurkeztu digulako. Urrats garrantzitsua eman du. Liburu on eta baliotsua! Eskerrik asko!

Egilea deskalifikatzen duen ohar deskalifikatzailea

Baina honako lerrook ez ditut liburuaren iruzkin kritiko eta orokorra egiteko idatzi (behar bada geroago egingo dut, liburuak merezi du eta), egileak leporatu dizkidan mesprezuzko esakerak dakartzen oharrari erantzuteko baizik (92. oharra, 29-30. orr.).

Ohar hori aztertuz gero, iraingarri gertatzen zaio egilari bai *eran* bai eta *edukinean*.

Egilea nire pertsona gauzatan sartzen da eta, oraindik askozaz txarragoa dena, *ez duela nire idazlana ulertu edo eta zeharo aldatu egin duela edukina* adierazten du. Benetan penagarria, gauzak era horretan aldrebestuak izatea: hain zuzen ere, idazlanaren *oinarriko eta funsezkoa guztiz okerretara*, atzekoz aurrera ulertzea. Eta hori dela eta, sarritan aurreko idazlanean idatzitako esaldiak hitzez hitz ekarriz erantzungo diot, irakurleak argi ikus dezan zenbateraino aldatu izan duen A. Azkaratek, batzutan, idazlan horretako esannahia. (*Kristautasunaren sarreva Euskal Herrian (A. Azkarate-ren lanari kritika)*, karmel 1988-1, 71-78.

Arloz arlo ihardungo dut:

1. Mesprezuzko tankeran eginiko eraso pertsonalak

Ohar horretan honakook irakurtzen dira: «provocando la ira de un religioso carmelita que, en un breve artículo de estilo tenso y agresivo»...; «a este fogoso carmelita»... etab. Nik nire artikuluan ez nuen «hasarrerik» agertu «poza» baino. Honako hau esaten nuen: «A. Azkarateren idazlana irakurtzean nire zentzioritariko bat *poza* izan da: *poza*, kristautzearen gai garrantzitsu hau historiarientzat erakargarri dela somatzean; eta dokumentuetan urria eta denboran urrunekoa delako gai iluna gertatzen den honetan apurka-apurka argi eginez doala konturatzean. Beraz,

onuragarritzat jotzen ditut honelako lanak» (72. orr.).

Nik, A. Azkarate-ren lan horretan hain ongi azalduta ez datozen puntu batzu zorrotasunez kritikatzan baditut... eta jaun honek, aurkako arrazoiak eman beharrean, mesprezuzko tankera duten hitz horiek leporatzen badizkit... berak konpondu beharreko zera da!

Nik, artikulua egin nuenean, ez nion ekin A. Azkarate-ren pertsonari buruzko zerak, gaztea ala zaharra, apaiza ala seminarista ohia, ezkondua ala alarguna, ernegu txarrekoa ala sutua eta halako zerak esateari. Nik, berak eskamiko emaitza, beraren artikulua juzkatu nuen eta beraren artikulua abiapuntutzat hartuz gaiaren problematika orokorrari buruz ihardun nuen.

2. Aldrebeskeria

A. Azkarate-k, nire artikuluan aipaturiko «aurreratzaileak» eta «atzeratzaileak» deituei buruz (hau da: Euskal Herrian Kristautzea *aurreratu* nahi luketenak, III-IV mendetara arte batzuk, eta *atzeratu* nahi luketenak bestetik XII. mendera arte) iruzkina egitean zera dio: «proponiendo él mismo otra» (bereizketa).

A. Azkarate Jauna, nik EZ DUT «PROPOSATZEN», guztiz *alderantziz baino*; hau da: «bereizketa» hau ez dela, *nik neuk asma nezakeen antzeko bestea* bezala, bat ere serioa eta zientifikoa nioen; eta biak gaitzesten nituen!!! «Honelako bereizketa edo sailkapenetan bada egiazko zerbait ere, baina errakuntza eta manipulaziorik ere eta eztabaida-iturri izan ohi dira beti. Nik neuk ere ASMA DEZAKËT, *aurreko hauen antzera, beste bereizketa bat egiazko zerbait duena baina eztabaidagarria eta zientifikoa ez dena: atzeratzaileak*: Espainia zaleak (eleizgizonak ere barne direla) eta erlijioaren arerio diren euskaldunak; *aurreratzaileak*: euskaldunak, gehiengoak eleiz-gizonak osotzen dutelarik. Hemen badago egiazko zerbait, baina historialarien *arrazoi bide zientifikoak baino gehiago, sentimenduak isladatzen dira*» (73-74. orr.). Argi ikusten denez, nik ez dut horrelako *bereizketarik* onartzen eta gutxiago oraindik *proposatzen!*

Eta horretaz gainera oharterazi egin behar dut, nik *asma*

dezakedan bereizketa hori ez duela A. Azkarate-k gaztelerako testuan transkribatzen edo eta ongi itzultzen, nik bereizketa horretan jarri nuen ironia aldatuz.

Nik *proposatzen nuen* oso bestelakoa zen; honako hau esaten nuen: «Zuzenago, argiago eta zientifikoago litzateke beste bereizketa hau egitea: alde batetik gaia sakonki aztertu dutenak [aurreratzaileak izan ala atzeratzaileak, berdin]; eta bestetik, gaia ganoraz aztertu ez dutelarik, jakin ez, eta itsu-itsuan baieztapenak egiten eta beren inguruan funtsik gabeko kritziak eraikitzen dihardutenak».

3. Zerik grabeena

Eta aurrerakoaren ondorioz, zertxobait aurrerago ohar horretako hutsgeiterik handiena dakar hitz hauetan: «Tremenda afirmación de peligroso contenido ideológico que nos dejó, cuando la leímos, llenos de estupor». A. A.-k, aurreko esaldia ondo ez adituz ondorio guztiz faltsua ateratzen du. Hain zuzen ere, «tremenda afirmación» deritzan horren aurka (ez baita nire baieztapena A. A.-k asmatua baizik) idatzi nuen artikulua. Aldrebeskeria handiagorik nekez egin daiteke!

4. Beste gaizki ulertze bat

A. Azkaratek iruzkitzen dihardu: «Unicamente parece lógica a este...» Antza denez ni «aurreratzaileak» deitzen defendatzaile egiten nau. Baina nire artikulua ez duenez ulertu, letra andiz idatzi beharra dago Ni ez naizela EZ AURRERATZAILEA ez ATZERATZAILEA: Ezin dut oso «aurreratzaile» izan agiri bidezko behar adina proba ez dagoelako; eta ezin dut oso «atzeratzaile» izan, ez izateko nahikoa agiri bidezko proba dagoelako!!!

Eta logikoa dela «aurreratzaile» izatea esaterakoan, espreski, sentimenduzko zerbait dela eta ez zientziatzkoa esaten dut: «Aurreratzaile izatea askoz ere logikoa da, garai ilun baten aurrean gaudenean edo eta dokumentaziorik ez denean, berezkoa baita sentimendu, maitasun edo irudimenaren arabera jokatzea» (74. orr.). Eta hau sentimenduz hain logiko eta gizabidezkoa delako

Europako elizbarruti eta nazio ugari egin izan dute. Baina, berriro diot, ongi aditua izan dadin, hau ez da zientziatzkoa eta ondorioz ez dut onartzen.

Jarraiko nire esaldi honek, zer esanik ez, mina eman dio, itxura batetan, A. Azkarate-ri: «Atzeratzaile izateak, ordea, ez jakina edo asmo txarrekoa izatea esan nahi du». Entzureko gogorra da, baina, egia biribil-biribila; adibidez, P. Garcia Villada historiagile ospetsua, kristautasunaren sarrera batzutan XII. menderrate eta beste batzutan XI. erate atzeratzen zuena, geroago jakin izan denez, IX-XII. mendeen dagozkien errealitatea *neurri handi batetan ezagutzen ez zuena dugu*. Eta, beraz, gai honetan «ezjakina» zen; eta nik honako hau esaten nuen artikuluan: «IX-XII. mendeak aski ezagunak direlako eta hain argibide eta dokumentazio ugari izanik, ez dago ezikusi egiterik, errealitatea dokumentuen argitan musturten aurrean baitugu».

Eta «asmo txarrekoak izatea» deritzanari dagokionean, eguneroko bizitzan ikusten dihardugun zerbait da. Horren testigantza ematen du A. Mañaricua-k eta orrelako zerbait dakar. Baita ere, A. Azkarate-k bere liburuko 3. eta 48. orrialdeetan. Eta nik, egunero zenbait irratiri emankizun... entzuten ditudan honen, konstata daitekeen gertaera bat dela frogatzea; beste hainbeste, baita ere, hainbat argitarapenetan. Jakina, «asmo txarrek» gaur egungo zio sozio-politikoaren eraginez.

5. Kasualitatea ala kointzidentzia?

Bere artikuluan (1987) A. A.-k atzeratzaileen artean aipatzen zuen M. Rouche: «Akitaniako historiarako hain kualifikatua den M. Rouche historialaria, oraindik oraindik lan batetan, baskoien paganismoa XI. mendean bertan jartzearaino heltzen da» (40. orr.).

Nik, xumetasunez eta argitasunez arbuaitu nuen M. Rouche-k erabili zuen argumenduaren baliogabetasuna. Eta, kasualitatez, M. Rouche-ri egiten zion aipamen hori ez da ageri A. Azkarate-k argitaratu berri duen liburuan.

Nire argumentazioak ontzat jo eta horren ondorioz kendu

ete zuen azken testu hori liburutik? Edo eta kointzidentzia huts ote? Lehen kasuan ez ete zen zintzoagoa izango aitatzeari? Eta bigarren kasua baldin bada, horretan geratzen da, kasualitate edo kointzidentzia hutsean.

6. Irristada?

Azaldutakoan argi geratzen da A. Azkarate-k ez duela nire artikulua ulertu edo eta era arraroan aldrebestu duela.

Hau honela, galdera zorrotz bat egin daiteke: hain laburra den nire artikulua era hain faltsutuan adierazten badu, ez ete du beste hainbeste egin, bere ikerlan historiografikoan hain oparo aipatzen dituen beste lan batzurretan? Galdera izugarria, benetan!

Ez dela hala izan pentsatu nahi dut eta, eskuzabaleko izanik, nahiago dut nire artikulua komentatzeko duen *ohar* hori irristada izugarria, baina irristada bakarra izan dela pentsatzea.

Julen Urkiza